# AKTA/ ACTA

| Espediente zbk. | Kide Anitzeko Organoa |
|---|---|
| OSB/2025/3 | Osoko bilkura |

**BILKURA EGITEKO DATUAK**

**Deialdi mota:**
Arrunta

**Data:**
2025Eko apirilaren 29A

**Iraupena:**
19:00tik 19:30ra arte.

**Lekua:**
Udalbatza aretoa

**Lehendakaria:**
ENETZ EZENARRO ARRIOLA

**Idazkaria:**
NEREA ETXARRI UBEDA

| BILKURARA BERTARATZEA | | |
|---|---|---|
| **Identifikazio zenbakia** | **Izen-abizenak** | **Bertaratuta** |
| 72581191E | Amaia Urra Mardaraz | BAI |
| 72579288M | Borja Rodriguez Barreras | BAI |
| 15378752D | Dorleta Lazarobaster Arakistain | BAI |
| 15386270Y | ENETZ EZENARRO ARRIOLA | BAI |
| 15391365H | Nerea Isasi Bedayo | BAI |
| 15375878X | Olatz Bizkarguenaga Iñarrairaegui | BAI |
| 15394255X | Sonia Garcia Raposo | BAI |

Idazkariak organoa balioz eratu dela egiaztatu ondoren, lehendakariak bilkurari hasiera eman dio, eta aztergaien zerrendan jasotako gaiak eztabaidatu ditu.

| A) ERABAKI ZATIA | |
|---|---|
| **Aurreko bilkuraren aktaren onarpena** | |
| **Alde/ Favorable** | **Bozketa mota/ Tipo de votación:** Ahobatezkotasuna/Onespena/ |

NEREA ETXARRI UBEDA (1, guztira 2)
Secretaria interventora / Idazkari Kontuhartzailea
Sinaduraren data: 08/05/2025
HASH: c2e30fd4f8e78f381ecacb025e39c5d1

ENETZ EZENARRO ARRIOLA (2, guztira 2)
Representante Legal
Sinaduraren data: 12/05/2025
HASH: bd395594cf8be13c489ea4b6cada1ec44

Baliozkotze Kod.: 6WQEZH9G9WTNZP5H3HJJJKGXX
Egiaztapena: https://mendaro.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 1. orrialdea, guztira 5

| | |
|---|---|
| | Unanimidad/Asentimiento |

**Ebazpena/ Resolución:**

2025eko martxoaren 18ko akta ahobatez onartzen da.

| 123/2025 espedientea. Eguneko Zentroaren lizitazioa | |
|---|---|
| **Alde/ Favorable** | **Bozketa mota/ Tipo de votación:** Ahobatezkotasuna/Onespena/ Unanimidad/Asentimiento |

**Egitateak eta zuzenbideko oinarriak/ Hechos y fundamentos de derecho:**

Erabilera-anitzeko landa eremuaren (Eguneko Zentroa eta 3 babestutako apartamentuak) erabilera eta kudeaketaren Zerbitzuaren Emate Kontratua dagokio, aurreko kontratuaren epemuga heldu delako

Kontuan hartuta kontratu honen izaera Zerbitzuak ematea dela, 1+1 urteko iraupenarekin eta prozedura IREKIAREN bidez. Lizitazio elektronikoa izango da, eta esleipen-irizpideak balio-judizioaren bidez eta formulak aplikatuz baloratuko dira.

Esleipen berria arautuko duten baldintza ekonomiko, administratibo eta teknikoak kontuan hartuta, proposatzen da

Considerando que procede la licitación del Contrato de Prestación del Servicio de uso y gestión del Centro Rural Polivalente (Centro de Día y 3 paratamentos tutelados) por vencimiento del contrato.

Teniendo en cuenta que la naturaleza de este Contrato es la Prestación de Servicios, con una duración de 1+1 años mediante procedimiento ABIERTO. Será una licitación electrónica y los criterios de adjudicación serán aquellos a valorar mediante juicio de valor y mediante la aplicación de fórmulas.

Teniendo en cuenta las Condiciones Económico-Administrativas y Técnicas que regirán la nueva adjudicación, se propone

**Ebazpena/ Resolución:**

Lehenengo.- ONARTU, Erabilera-anitzeko Eremuaren Erabilera eta Kudeaketaren Zerbitzu-Emate bidezko kontratazio espedientea, eta dagokion gastua 365.376,60 euro/urtean (+%4 BEZ) 4 urteetan 730.753,20,- euro (+%4 BEZ) , prozedura irekieraren eta lizitazio elektroniko bidez esleituko dena, dagokion deialdia luzatuz.

Bigarren.- ONARTU, Erabilera-anitzeko Eremuaren Erabilera eta Kudeaketaren Zerbitzu Emate kontratua eraenduko dituen, baldintza ekonomiko-administratibo eta baldintza teknikoen pleguak, hainbat esleipenerako irizpide erabiliko direlarik.

Primera.- APROBAR el Plan de Uso y Gestión del Área Polivalente Expediente de contratación por Prestación de Servicios y gasto correspondiente 365.376,60 euros/año (+4% IVA) a 2 años 730.753,20, - euros (+4% IVA) mediante apertura de procedimiento y licitación electrónica la que se adjudique, prorrogando la correspondiente convocatoria.

Segundo. – APROBAR los Pliegos de Condiciones Económico-Administrativas y de Prescripciones Técnicas que regirán el Contrato de Prestación de Servicios de Uso y Gestión del Centro Polivalente, con arreglo a diversos criterios de adjudicación.

Baliozkotze Kod.: 6WQEZH9G9WTNZP5H3HJJKGXX
Egiaztapena: https://mendaro.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 2. orrialdea, guztira 5

**Mendaroko Udala**
Herriko enparantza, 1, Mendaro. 20850 (Gipuzkoa). Tfnoa. 943033282. Fax: 943033281

| Hirugarren.- Alkateari eskuordetza eman, kontratazioa aurrera eramateko behar diren tramite guztiak egiteko. | Tercero.- Delegar en el Alcalde la contratación de aquellas para la realización de todos los trámites. |
|---|---|

| 79/2025 espedientea. 2024ko Kontu Orokorra | |
|---|---|
| **Alde/ Favorable** | **Bozketa mota/ Tipo de votación:** Ahobatezkotasuna/Onespena/ Unanimidad/Asentimiento |

**Egitateak eta zuzenbideko oinarriak/ Hechos y fundamentos de derecho:**

2024 ko ekitaldi ekonomikoari zegokion Korporazio honen Kontu Orokorra eratu zuen Kontu-hartzailetzak, baita hari erantsitako dokumentazio guztia ere, indarrean dagoen legeriaren arabera.

Kontu-hartzailetzak 2025eko otsailaren 11ean eman zuen kontu orokorraren onarpenari buruzko txostena.

Ondoren, erakunde honen Kontuen Batzorde Bereziak, 2025eko otsailaren 18an egindako bilkuran, korporazio honen 2024 ekitaldiko Kontu Orokorrari buruzko nahitaezko txostena egin zuen.

2025eko martxoaren 4ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarkiaren bidez Kontu Orokorra jendaurrean jarri zen hamabost egunez; epe horretan, interesdunek erreklamazioak, eragozpenak edo oharrak aurkeztu ahal izan zituzten.

Jendaurrean jartzeko epean ez da alegaziorik aurkeztu.

Hori guztiagatik eta kontuan izanda Gipuzkoako toki erakundeen kontabilitate-esparru arautzailea onartzen duen abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretuan esandako ajarraituz, hala nola, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.e) artikuluan xedatutakoaren arabera, Udalbatzak erabaki hau hartu du ahozbatez:

**Ebazpena/ Resolución:**

LEHENA.- 2024ko ekitaldiko Kontu Orokorra osatzen duten kontuen eta egoera onartzea, bai eta haien eranskinak ere, Gipuzkoako toki-erakundeen kontabilitate-esparru arautzailea onartzen duen abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretuak xedatzen duenaren arabera aurkeztu zen kontu hori, eta erakundearen beraren kontuaz osatua dago.

BIGARRENA. Kontu orokorra eta kontu hori osatzen duten agiri guztiak Euskal Kontu Auzitegira bidaltzea.

| 2026ko eguteko ofizialean tokiko jai eguna aitortzea | |
|---|---|
| **Alde/ Favorable** | **Bozketa mota/ Tipo de votación:** Ahobatezkotasuna/Onespena/ Unanimidad/Asentimiento |

Baliozkotze Kod.: 6WQEZH9G9WTNZP5H3HJJKGXX
Egiaztapena: https://mendaro.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 3. orrialdea, guztira 5

**Ebazpena/ Resolución:**

2025eko apirilaren 8ko 82/2025 Dekretuak (2025.04.25ko EHAA) Euskal Autonomia Erkidegoko 2026rako jaiegunen egutegi ofiziala onartu duela ikusirik. Aipatu Dekretuak xedatzen duenez, bi mila eta hogeita seigarren urtean, Euskal Autonomia Erkidegoan jaieguntzat hartuko dira lan ondorioetarako –ordaindu egingo dira eta ez dira berreskuratu beharko– urteko igande guztiak eta jarraian aipatzen diren jaiegunak:
Urtarrilaren 1a, Urte Berri eguna.

Urtarrilaren 6a, Jaunaren Epifania.

Martxoaren 19a, San Joseren eguna.

Apirilaren 2a, Ostegun Santua.

Apirilaren 3a, Ostiral Santua.

Apirilaren 6a, Pazko Astelehena.

Maiatzaren 1a, Langileen Eguna.

Uztailaren 25a, Santiago Apostoluaren eguna.

Abuztuaren 15a, Ama Birjinaren Jasokundea.

Urriaren 12a, Espainiako Jai Nazionala.

Abenduaren 8a, Andre Maria Sortzez Garbiaren eguna.

Abenduaren 25a, Eguberri eguna.

Era berean, lan ondorioetarako, jaiegun izango dira –hau da, ordaindu egingo dira eta ez dira berreskuratu beharko–, bi mila eta hogeita seigarren urtean, tokiko jaiegun izaera izango duten bi egun. Laneko eta Gizarte Segurantzako lurralde-ordezkariek zehaztuko dituzte egun horiek, udaletako osoko bilkurek proposatuta. Lurralde historiko bakoitzeko gainerako udalerriekin batera edo aparte hartu ahalko dira egun horiek.

Kontutan izanik, herrian ohiko tokiko jai eguna, Santa Ana eguna, uztailaren 26a igandea dela

Udalbatzak, ahobatez,

**e r a b a k i t z e n d u**

LEHENENGOA.- Gaia eguneko gaien artean barneratzea.

BIGARRENA.-Eusko Jaurlaritzako, Lan eta Enplegu Sailari proposatzea, Mendaroko Tokiko Jaieguna 2026 urtean, Uztailaren 27a

HIRUGARRENA.-Erabaki hau, Eusko Jaurlaritzara (Gipuzkoako lurralde Ordezkaritza), Lan eta Enplegu Sailera,bidaliko da.

Baliozkotze Kod.: 6WQEZH9G9WTNZP5H3HJJJKGXX
Egiaztapena: https://mendaro.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 4. orrialdea, guztira 5

LAUGARRENA.-Irizpide moduan, Santa Ana eguna larunbata denean, hemendik Aurrera Trinitate Txiki eguna izango da Udalerriko jai eguna. Aldiz, Santa Ana eguna igandea denean, hurrengo astelehena izango da jai eguna.

## B) KONTROL-JARDUERA

### Alkatetzaren Ebazpenak

Alkatetza ebazpenen berri ematen da.

### Kreditu aldaketaren berri ematea

Kreditu gehigarrien bidezko aurrekontu aldaketaren berri ematen da.

## C) GALDE-ESKEAK

Ez dago gairik/ No hay asuntos

**ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA/ DOCUMENTO FIRMADO ELECTRÓNICAMENTE**

Baliozkotze Kod.: 6WQEZH9G9WTNZP5H3HJJKGXX
Egiaztapena: https://mendaro.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 5. orrialdea, guztira 5